

Laster kaleratuko da José Mari Sánchez Carrión «Txepetx»ek burututako «La construcción de Euskal Herria. Un futuro para nuestro pasado» deritzan tesia. «Jakin» aldizkariak aurrea hartu nahi izan dio merkatuari eta tesiaren azterketa eskaini du bere azken alean. Ale horretan Paulo Agirrebaltzategik zera dio, besteak beste: «Unea da, ordea, eta horretarako bidea ematen du Txepetxen tesiak, erakunde ofizialek eta herritarrek —guztiak— beren ikuspegiaren, jokabidearen eta eritzien kritika agerian egitekoa, eta harreman bide berria urratzen hastekoa.» Autokritikaren abiapuntu hau, besterik gabe, guztiz interesgarria delakoan, zertxobait zehaztea eskatu zaie, bai Paulo Agirrebaltzategiri berari, eta baita M. Karmen Garmendia eta Eneko Oregiri ere. Jakina denez, M. Karmen Garmendia Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntz-Politikarako Idazkaria da eta Eneko Oregi, berriaz, IVAPEko Euskara-Saileko Arduraduna eta Eusko Alkartasunaren euskara-txostenaren egileetako bat. Hala ere, garbi gera bedi, hemen azaltzen diren eritziak guztiz pertsonalak direla eta ez dutela bestelako inongo ordezkariarik. Horrez gainera, eta gai honen inguruan, Kultura Sailburu den Joseba Arregik bere iritzia ematen du ale beronen hamaikagarren orrialdean.

EUSKARAREN HIZKUNTZ-POLITIKA

ERAKUNDEEN eta gizartearen artean ez dira behar bezalako harremanak sortzen askotan. Eta euskararekiko arazoetan ere ez dira sortu. Instituzioei muzin egiten dien alderdi nahiko handia izateak ere zailtzen du berez ere nahiko zaila den azia. Baina instituzioen beharra eta hoietan parte hartzearen aldeko joera indartzen ari dela sumatzea pozkarria da. Euskararen etorkizun arduraturik garenontzat, batez ere. Euskarak guztion laguntza behar bait du.

Erakunde ofizialen eta herritarren arteko harreman dialektikoak osasungarriak lirateke. Erakunde ofizialak dira, noski, Udal Euskara Zerbitzu eta Batzordeetatik hasi eta Eusko Jaurilaritzaren zerbitzuataramoko guztiak.

Eta «herritarak», herriarren onarpen zabalak dutenak. Alderdi politiko jakin baten eraginpean eta esanera dihardutenak alderdi jakin baten adar besterik ez dira. Eta euskarari on aima kalte egin diezaioke, irizte berekoan onarpena eta besteen gaitzespena lortzen dituztelako.

Herriarren onarpen zabalak dituen elkarte eta taldeekin oso osasungarriak gerta daitezke harreman dialektikoak. Baina sistema demokratiko batek oso kontuan izan behar du taldeen errepresentazioa. Oposizioari dagokion zereginik ezin bait die onartu talde hauei.

Euskarak ez du talde alderdikoiaren beharrik. Eliteak bai, beharrezkoak ditu, baina ez administrazioarekin harreman dialektikoak izateko, ez bait dute horretarako herriarren nahiko babesik. Kultur eliteak herria esnatzeko, galdera berriak egiteko, argibideak eskaintzeko dira beharrezkoak.

Euskararen etorkizuna ez dago erabat politikoaren eta erakundearen esku, zenbaitek hala uste badu ere. Askotan esan dugu legeak, aginduak, erabakiak, plangintzak eta neurriak beharrezkoak izanik ere ez direla aski, Herriak eskatu, onartu eta bultzatu behar ditu.

Horretarako beharrezkoak dira herriarren onarpen zabalak duten elkarte eta taldeak. Bi eginkizun nagusi bete behar dituzte, nere ustez, Herriak gero eta bereago eta onartuago izan dezala euskara, lortu, eta herri-agintariekin eta erakunde publikoekin harreman dialektikoa izan, administrazioari aurrera bultzatzea.

Erakunde ofizialak eta herritarrek elkarren etsai eta kontrajariak direla uste baldin bada ez da konponbiderik. Baina elkarren osagarri direla uste badugu fruitu emankorrek eskainiko dizkigun jokabidea gerta daiteke.

M. Karmen Garmendia.



JAKIN-en azken aleak gure herrigintzaren arazorik gorienariko bati buruzko, euskarari, hain zuzen, tesi bat eta zenbait go-goeta plazaratu dizkigu. Tesia, Sanchez Carrión, Txepetx-en «La construcción de Euskal Herria. Un futuro para nuestro pasado» lan argitaragabearen oinarri-aurkezpena dugu. Gogoeten artean, herri-erakundearen eta talde herritarren arteko dinamizari buruzko leioa berritzen duenik ere bada. EGUNA-koek eskatu didaten iritzia, horretaz da, hain zuzen ere. Erakunde herritarren beharra, herri-administrazioaren erantzukizuna eta bi maila horien arteko dialektika, izan, printzipio-orokorregiak ditugu arazoari heltzeko. Denok gaudes ados, baina bakoitzak berea ulertzen du. Ze, azken batean, gure herriaren gertatzen diren gatazka eta auziak lerro paralelotan, behin ere elkar ikutu gabe bilakatzen baitira, urteak joan eta urteak etorri. Gutartearen politika ez da inorenari erantzuz, kritika eta aukerak emanez gautzen, besterena orohar gaitzesiz eta haren proposamenei kasurik apurrena ere egin gabe baizik.

Aldizkari berean: I. Aracil soziolinguistikak ematen digu, nere ustez, gakoa, euskal soziolinguistikaz diharduela: «Hemen edo han soziolinguistika on bat ez egotea deitoratu ordez, probetxugarriago izango litzateke hemen zergatik ez dagoen galdetzen haseta. Jakina, hemen testuinguru bat falta da: zer faltako eta Euskal Herriak bilakatu behar duen eta soziolinguistikak lagundu behar dion gizartea, hain zuzen ere». Zita luze-samarra, agian, baina garden-gardena. Eta gakoa hor baldin badago, Paulo Agirrebaltzategiaren bezalako jarraerak eztiote gure herriari, beti ere nere iritziz, aurrerapiderik eskaintzen.

Euskal gizarte-bilbea osatze bide beharrezko horretan, herri-helburuak erabaki dituzten herri-erakundeak behar ditugu; hautabideak eta aukerak kritikaren bitartez landuko dituzten talde eta mugimendu herritarrik sortu beharko ditugu, hots, alderdi eta sindikatu jator eta herritarren esanekoak, elkarte ireki eta dinamikoak, interes eta nahi guztiak isladatzeko eta plazaratzeko gizarte-sare zabalak; azkenik, egia da, izan, bi mailon arteko dialektikak gizendu behar lukeela Euskal Herriaren garapena. Tamalez, ez dira gauzak horrela gertatzen, eta egunetik egunerako geroak esango digu zein elkarte, erakunde eta talde zaizkigun baliagarri eta zeintzuk, berriaz, jokabide zitalaz kutsaturik, beren buruak euskal gizartegintzarako baliogabetu dituzten.

Azkenik, eztabaida mugatu honen gora behera, azpimarra dezadan Txepetx-ek aurreratzen digun tesia ez dela, inola ere, oldozkeran pasatzen uztekoetakoa. Eraiki eta begi-gogoetaratu digun arazoibidea, euskaldun eta euskaltzale guztion artean aztertu eta sakontzeko abiaburu dugu. Gure esku aukera horretaz baliatzea.

Eneko Oregi.



AZKEN hamar urteotan euskararen normalizatzeko politika osoaren kritika egiteko unea dugu: Eraikunde ofizialena eta erakunde herritarrena. Bieta-koak dira behar-beharrezkoak Euskararen normalizatzeko eta berreskurapen osorako.

Autokritika eskatu digute; eterokritika ugaria bait da orain artekoa ere. Baina ni ez naiz herri-mugimendua, ezta inolako erakunde herritar ere. Ez naiz horien ordezkaria ere, lerro hauek idazten. Baina erakunde herritarren aldeko «autokritika» egiteko eskatu didate, besteren batek erakunde ofizialen aldekoa egingo duela eta. Gogoz onartu dut. Beharrezkoa deritzat.

Zer dira erakunde herritarrik, erakunde ofizialen aurrez aurre? Edota herri mugimendua administrazio publikoaren aurrez aurre? Herri osoaren halako helburu jakinetarako herritarren beraien ekimenez sorturiko eta eraturiko talde, elkarte eta bestelako organismo ireki eta autonomoak dira.

Erakunde ofizialak eta erakunde herritarrik, biak dira «publikoak» beren erara, eta erakunde pribatuetatik bereizten dira. Publikoak direlako, hain zuzen, go-goeta eta kritika honek ere jendaurreeko eta taldeko izan beharko luke (du) izan. Horixe suspertzera datoz nere lerro hauek.

Uste dudanez, inork ez du gure artean ukatzen, Euskararen defentsarako borrokan eta horren berreskurapenerako lanean herri-erakundeek eduki duten garrantzia aurreko urteetan eta azken hamar hauetan, erakunde ofizial berriak etorri direnetik. Areako: nere ustez, orduan eta gero nahilaezkoa da herri-mugimendu erlatua eta autonomia, Euskararen berreskurapen osoa lortuko badugu.

Garai hartako erakunde ofizialen eta herri-erakundearen harremana etena zen gehiago, euskarari zegokionez. Baina azken urteotako erakunde ofizial «berrien» eta erakunde herritarren arteko harremanak ere ez dira egokiak izan, Euskararen normalizatzarako plangintzari begira. Orduan da, alde batekoek eta bestekeok beren ikuspegiaren, jokabidearen eta erizpidearen kritika egitekoa, eta harremanen bide berria irekitzekoa.

Bost puntu ikusten ditut nik herri-erakundearen orokorki kritikoki sakondu beharrezkoak: a) Lilura eta ametes handiegiz ikusi izana Euskararen berreskurapenaren prozesua; herri-mugimenduarikeko lilura handiegia, hain zuzen; b) Lehendik erakunde ofizialei zuzen zegoen tirabirazo edo etenezko jarraera, inertziaz edo, erakunde «berriei» buruz ere luzatu izana; c) Euskal Herriko erakunde estaltalen euskararekiko erantzukizuna ahantzirik edo, beste hurbilagoko erakunde ofizialen aurrean soilik euskararekiko eskabideak iniri izana; d) Euskal Herriaren berretatikuntzako prozesuan, politikaren alorari erabateko nagusitasuna hartzen utzi eta kulturazko-hizkuntzakoaren autonomia nahikoa zaindu ez izana; e) Euskara guztiona eta guztiontzat dela eta ez aber-tzaleona eta abertzaleontzat bakarrak, sarritan argi eduki ez izana; f) Euskal Kulturarik eza edo koordinazio eskasa.

Nere ustez, aipaturiko harremanak zuzenbideratzeko hiru abiaburuak dira zintzoki baieztatzeak: a) Herri-dinamikaren ezinbestekoa eta protagonismoa Euskararen berreskurapenaren bidean; b) Horretarako erakunde ofizialen premia eta horien funtzioez eginkizuna eta erantzukizuna; c) Bi mailetako erakundearen arteko harreman dialektikoa.

Euskararik gabe Euskal Herria ez! Ez ahal gatzoz guztiok bat horretan? Abiapuntua izan daiteke.

Paulo Agirrebaltzategi

